


## UDAL BATZORDEEN BERRI


LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Ekimen sozio-kulturalak (2019/06/18)</b>  Hurrengo saioa: 2019/07/02	Udalekuak	Udalekuetan haurrek izango dituzten zaintzaileekin bilera egitea adostu da: asteazkenean, ekainaren 19an, 18:30etan. Zaintzaileekin tratatuko diren gaiak: bakoitzak zein astetako ardura hartuko duen, bakoitzaren zereginak, haurren zerrenda, kontaktu datuak eta kontratua egiteko prozedura adieraziko zaizkie. Koordinazioa bermatzeko 'Udalekuak 2019' whatsapp taldea sortuko da.	Batzordetik Udalekuen jarraipena egin
	San Juan bezpera	San Juan bezperako programa adostu da. Ekainaren 23an, igandean, izango da eta egin beharreko zereginak zerrendatu dira: Ostaturkoekin egon, suaren bueltan jartzeko hesiak ekarri, Narrasperekin egon, zuhaitz adarrak bildu eta sua emateko prestatu, dantza entsaiorako deia egin, ... Jakinarazpena banatzeko prestatu da.	
	Herriko produktuak	Izena emandakoen artean batzordea osatu da eta lehenengo bileraren ondoren, Arabako Ozaeta-n martxan dagoen esperientzia ezagutzeko irteera egitea adostu da, datorren larunbat goizean, uztailearen 6an	

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2019/06/25)</b>  Hurrengo saioa: (2019/07/10)	Euskara klaseak	Izena eman duten kideen kopurua 8koa da (hauen artean, 3 adin txikikoak). Zerrenda AEKra bidali da eta interesa azaldu dutenekin bilera egingo da, bakoitzaren disonibilitatearen baitan, ordutegia bateratzeko. AEK-k taldearen ezaugarriak onartuko ez balitu, beste aukera batzuk aztertuko dira.	- AEKren baldintzak ezagutu. - Uztailearen lehen asterako bilera antolatu.
	Arieriako Tenplu Parrokialen inguruko tesia	Ramon Ayerza arkitektoak 'Arieriako Tenplu Parrokialen bilakaera' gaitzat hartuta, tesia burutu du. Itsasoko parrokia bertan aipatzen denez, argitara emango den liburuan Udalaren zigilua eta armarrria jartzeko gehi finantziazioan laguntzeko proposamena luzatu digu EHUK. Honekin batera, liburuko lehen kapitulua eta ale bakoitza zenbat kostatzen den adierazi digute(35€). 20 erosi direla adostu dugu. Liburuaren dibulgazioa herrian egin nahi da eta Ramon Ayerzak hitzaldia eskaini	- Ramon Ayerzaren hitzaldia antolatu. - Liburuak erosi.



		dezan eskatuko zaio. Liburuaren izenburua 'Iglesias de maderá en Gipuzkoa' da.	
	Kontsumobide tailerrak	Lehenetsi dituzten hiru gaiak hauek dira: <ul style="list-style-type: none"><li>- Elikadura eta nutrizioa</li><li>- Saihestu arriskuak</li><li>- Etxeko aurrezpena</li></ul>	- Tailerren eskaera egin - Jakinarazpenak prestatu
	Itsaso 2030	Herri Batzarraz geroztik, ITSASO 2030 proiektuari jarraipena emateko, uztaileako proposatzen diren egiteko nagusiak aztertu dira: 1) Itsasoko herritarren beharrak, iritziak eta proposamenak jasotzeko inkesta zabaltzea (uztailaren 4tik aurrera). 2) 4 lan taldeak osatzeko urratsak ematea: Hirigintza eta Etxebizitza / Enplegua eta Tokiko ekonomia / Herri bizitza / Gazteak.(uztailaren 4tik aurrera) 3) Lan talde bakoitzarekin lehen bilera bat egitea, lan talde bakoitzaren aztergaiak, funtzionamendurako dinamika eta lan egutegia adosteko (uztailak 10-19). 4) Etxeetara zabalduko inkestaren jarraipena egitea, parte hartu ez duten herritarrekin ahalegin berezi bat egitea eta inkestatze fasea amaitzea (uztailak 18-26). 5) Batzordearen jarraipen bilera (Komunikazioa, Partaidetza eta Gardentasuna) egin, uztailean emandako urratsen balorazioa egin eta irailera begirako lan plangintza adosteko (uztailak 23). Urrats horiek martxan jartzeko, Batzordearekin uztailaren 3an elkartuko da Siadeco (batzorde eguna aldatzen da).	- Lantaldeak osatu ahal izateko, herritarrei gustuen zein lantaldeetan egongo liratekeen galdetu (whatsapp-ez) - Siadecoko kideek datozela eta, bilerarako deialdi berezia zabaldu

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOIA	HURRENGORAKO
<b>Azpiegitura eta ingurumena (2019/06/12)</b>  Hurrengo saioa: 2018/06/26)	Udaletxeko obra	Ganbara eraberritzeko gaur egungo egur egitura mantenduz, arkitektoak eskaini ditu aurrekontu zehatzak: Teknaliak egituraren erabateko azterketa egitea eta horren arabera zenbateko hormigoia kapa eta behar diren anklajeak kalkulatzeko eta bide batez teilatuko egurraren ikuskaritza sanitarioa egin eta hormigoia zoruan botatzeko, 28 egunetan udaletxearen eta etxebizitzaren solairua apuntalatu izanez, Ostua ikutu gabe 38.000€+BEZ.	Egitura osoa berria jarri gero zein aurrekontu izango lukeen jakin, erabakia hartu ahal izateko.



**ITSASOKO**  
**UDALA**  
(GIPUZKOA)

	Ur Kontsortzioaren inbertsioak	Ur Kontsortzioak (iaz Udalak beharrezko ikusten zituen lanak partekatu ondoren) jakinarazi du 60.000 eurotako inbertsioak gauzatuko dituela Itsason: Atinzabal eta Ori inguruan hodia azpiratzen, Goiti eta Egiluze artean sarea lekuz aldatu eta berritzen, Miraballes azpian arketa egiten, Beiti inguruan Itsaskanera bideratzen eta Atsusainen tramo bat berritzen.	
	GAINERA enpresaren lanak	Dagoeneko burutu ditu lan gehienak: Errebueltatik Itze aldera tramo bat hormigoitu eskoria kenduz, Itturritan hodia berritu eta hormigoitu beste tramo bat, Alzigarragako eskoilera bukatu eta esplanada hobetu.	Dagoeneko S Lorentzoko eskoilerarekin hasita daude. Astebetean bukatuta izango dira lanak
	Bide bazterrak	Urtero bezala Narraspe uztailaren 2. astean hasiko da etxeetarako bide bazterrak ebakitzen.	
	Disfibriladoareak	Iritsi dira eskatutako bi aparailuak eta une batetik bestera kokatuko dira Itsason udaletxe atarian eta baita Alegian ere.	Erabilpena gogorarazteko prestakuntza eskaini